

# LENTZERIA EROTIKOA

Kanpotik dotore joatea gustuko dugun bezalaxe barruko arropak ere politik izateari gero eta garrantzi handiago ematen zaio. Gainera, arropa hauek oso erakargarriak izan daitezke eta zertzelada erotikoez jositakoak badira, momentu goxoenetan garretan jar gaitzakete joko erotikosexualei lasa emanez. Hala ere, gakoa ez da soilik itzelezko lentzeria eroatea, daramanak ere osagarri honi bere ukitua gehitu beharko dio konbinazioa ederra izan dagiten.

Arrate Díez

Lentzeria-dendetako tangek, boxerrek, bikiniak, slipek, kuleroek, bularretakoek, bodyek, kortseek, pikardiek, gorputxoek, ligerok, galtzari-eustekoek, pijama erakargarriek, ... oso sexy bihur dezakete pertsonen arteko elkartzea. Txarola, puntilak, enkajeak, fosforeszentziak, transparentziak... egun merkatuan dauden lentzeria erotikoren parte dira. Arropa hauek norberaren bizitzan sensualitate lortzeko balio dezakete ere, norbere sua pizturik mantentzeko, ez bakarrik beste pertsonekin konpartitzeko.

Bilboko "Zu Zeu" lentzeriadendara hurbildu gara eta hango beharginekin solasaldian aritu gara beraien esperientziaren berri izateko. Martak dienez, "neskentzako pikardiak eta transparentziak dira nagusi lentzeria erotikolari dago-kionez. Hau modu orokorrean bada ere, tanga txikiak ere asko erabiltzen dira. Tanga hauek, adibidez, atzeko aldean tira bat besterik ez dute izaten. Badaude ere joko erotikoren parte izan daitezkeen tanga jangarriak edo eta oso deigarriak diren tanga fosforitoak, daukaten

materialari esker leku ilunetan argiztatzan direnak. Disolbagarriak diren tangek ere aurki ditzakegu, hau da, gorputzaren berotasun eta hezetasunarekin goxoagoak direnak eta miazkatuz gero usai hobetagoa lortzen dutenak guztiz desegin arte".

Dendariaren esanetan "gehien eskatzen dena erotiko modura minikuloteak, tanga oso miniak, pikardia transparenteak, kolore gorrikoak, ... seduzitzeko arropak izaten dira, batez ere. Hala ere, jendeak gauza erosoak nahi ditu. Mutilek tanga bereziak, txikiak, kolore diferenteetakoak eta boxerrak eroaten dituzte, esaterako, aurreko partea bakarrik daukana eta atzean eusteko besterik ez duena".

Jendeak bai beraiantzako zein beraien lagun edo eta bikotekideentzako erosten ditu barruko arropa erotikokoak.

Leku guztietan bezala, estilo ezberdinetako jendea aurki dezakegu erabiltzaileen artean, "Badago publiko bat berdin diena gauza bat zein bestea eramatea, baina badago beste mota bat nahi duena arropa erosoak baina aldi berean erakargarria erostea. Orokorrean jendeak gauza

koloretsuak eta alaiak nahi ditu" gaineratu du Martak. "Izan ere, barruko arropa norbera eroso eta gustura joateko da, eta aldi berean, ezusteko bat baduzu eta arropa polita bada eta ikusten bada, askoz hobeto" gehitu du.

Zu Zeu dendak lau urte dararama zabalik Zintureria kalean eta dendakoek diotenez, "gero eta gehiago kezkatzen da jendea barruko arropagatik. Mutil oso koketoak daude ere, ez bakarrik neskak". Beraz, badakizue, kanpokoa zaintzea gustuko baduzue, bada garaia barrukoari ere arreta jartzea. **F**

